


JARDUEREN EGITARAUA



2021

0	SARRERA
1	ZABALKUNDEA
2	ARGITALPENAK
3	GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK
4	<i>HERMES</i> , PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
5	GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA
6	EUSKARA
7	GAZTERIA
8	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
9	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
10	SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA
11	BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK
12	KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA
13	JARDUEREN ONURADUNAK

Sabino Arana Fundazioa irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundea da. Fundazioa 1988ko urriaren 11n sortu zenez geroztik, beraren zereginaren muina euskal historiaren ezagutza izan da: hura jagotea eta ezagutaraztea, betiere historia horri oraingo irakurketa egin dakion bilatuz, eta horrekin guztiarekin batera, ekarpen intelektuala egitea, Euskadik aurrera egiten segi dezan ikuspegi abertzale, demokratiko eta aurrerazale batetik







Atzokoan finkatuz, gaur biharkoa bultzatu. Horixe dugu Sabino Arana Fundazioaren leloa.

Horretarako, lau tresna nagusi baliatu ohi ditugu: Gogoeta eta eztabaida mintzagunea, Agiritegi historikoa, Abertzaletasunaren museoa eta *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkaria.

Jakin dakigu gure iraganaren inguruko gogoeta eta, oro har, gure historiaren inguruko gogoeta, guztiz hausnarketa esanguratsua dela egungo testuingurua ulertzeko, inolako zalantza barik. Iraganari buruzko jakintza egokiak eta hausnarketa sakonak baliabideak ematen dizkigulako ikuspegi kritikoa landu dezagun etengabe aldatzen den eta, zer esanik ez, gu geu bizi gareneko gizarteak dakarzkigun arazo eta erronken aurrean.

Euskadiren historian, okerreko topiko zaharrak eta mito faltsuak ugari dira. Horrez gain, aintzat hartzen badugu hemengo biztanle gehienek iraganari buruzko ezagutza eskasa dutela, behar-beharrezkoa da Euskal Herriaren historia berreskuratu eta modu errazean zabaltzeko ahaleginak egitea. Horri esker, hobeto ezagutuko dugu denok mundu honen errealitate konplexua.

2020. urtean, Sabino Arana Fundazioak hainbat jarduera antolatu ditu azken mende erdi honetan Europaren eta Euskal Herriaren bilakaeran garrantzi handi izan duten gertakari jakingarri batzuen urteurrenak gogorarazteko.

-  Nazio Batuen 75. urteurrena.
-  Erbesteko Euskal Kontseilu Nazionalaren eta Charles De Gaulleren Gobernuaren arteko sinaduraren 80. urteurrena
-  Manuel Irujoren heriotzaren 40. urteurrena
-  Ikurrinaren mendeurrena Argentinan
-  Resurreccion Maria Azkueren heriotzaren 70. urteurrena.
-  Nikolas Ormaetxea "Orixe" idazlearen heriotzaren 60. urteurrena.

**Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945**

Orain dela hamaika urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharrak egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

2

ZABALKUNDEA

2.1 | Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatuko ditugu DEIA egunkariarentzat.

2.2 | Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egingo ditugu hainbat irratitan, batik bat, Bizkaia Irratian eta Radio Popular de Bilbao/Herri Irratia, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearren.

2.3 | LAU HAIZETARA

LAU HAIZETARA-ATEAK ZABALIK sailean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin lotura duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratuko ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakutsiko ditugu, liburutegiko eta hemerrotekako aleak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta abar partekatuko ditugu; aldez edo moldez, Euskadiren historia eraiki duten gai historikoei eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak, gure historialariei irratian egindako elkarrizketak eta abar eskuragarri jarri ditugu.

GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgi CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpusa, el Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa. Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ilido honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dute gure instalazioetan.

Jarduera hauen helburuak ondokoak dira: gazteek eta helduek pertsona- eta lanbide-garapenean aurrera egiteko dituzten beharriazanei erantzutea eta lan-eskarmentuaren gisako aukerak eskaintzea.

2021eko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratuko ditugu, hain zuzen ere, 68, 69eta 70. zenbakiak.

 **68. zenbakia:** *Euskadi pandemiaren ostean*

Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen *Hermes* pentsamendu eta historiari buruzko aldizkariaren hurrengo aleak (68. zenbakia), gai bakarrekoak, izurritea Euskadin agertu zenetik igaro den urtebetetik gorako aldiaren nondik norakoak jorratu ditu. Alearen ehun orrialdeetan, gizarte-esparru guztietako adituen hausnarketak, COVID-19ak gurean izan dituen ondorioei buruzkoak, jaso dira, bai eta osasun-krisiaren laugarren olatua igarotzen denean, etorkizunari aurre egiteko moduaren inguruko gogoeta ere.

Telelana, lineako hezkuntza, autogobernuak gainditu behar izan dituen mugak, eskubideen murrizketa, merkataritzak izan duen aldaketa, industria, osasun publikoa eta pribatua, izurriteak genero-berdintasunean eta kulturaren izan duen eragina.... Gai horiek jorratu dituzte, besteak beste, hainbat adituk, kasurako, Daniel Inerarityk, merkataritzaganberetako presidentetek, Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako sailburuak edo Idoia Mendiak. Irakasleek, hezitzaileek... guztira, hogeit kolaboratzailek baino gehiagok eman dute azken urtean bizi izandakoaren ikuspegi sakona eta hurbila.

Kolaborazioez gain, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluri egindako elkarrizketa jaso da aldizkarian eta, bertan, COVID-19a gurean agertu zenetik igaro den urtebete eta zerbait gehiagoko aldia aletu du, eta itxaropenez baina ahots kritikoz agertu da denboratarte horretan jazo diren egoeren aurrean.

 **69. zenbakia:** *Euskara erabiltzeko eremu berriak*

laz, 65. zenbakian, hizkuntzen arteko bizikidetzan eragiten duten alderdiak aztertu genituen (euskararen ikuspuntutik).

Aurten, euskararen erabilera ardatz hartuta, etorkizuneko joerak identifikatu nahi ditugu, egun garatzen ari den gure hizkuntza biziberritzeko prozesuan kontuan har daitezten.

 **70. zenbakia:** *Lankidetzarako euskal eredu berria*

Zenbaki horretan, lankidetzarako euskal eredu berria berrikusten jarraitzeko asmoa dugu.

Mintegiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak ditugu Sabino Arana Fundazioak darabiltzan baliabide nagusiak XXI. mendean bertan bizi ditugun errealitate anitzak ezagutzeko. Jardunaldi eta topaldi horietan, hainbat jakintza-arlotako pertsonak bai eta, sarritan, kontrako ideologiak dituztenek, mahairatzen dituzte iritziak eta ideiak erkatzen dituzte, kultura-truke sustatzeko asmoz. Horrela, elkarguneak sustatzen dira kultura, politika eta gizarte ikuspegi desberdinetatik.

Jardunaldi horietako guztiak irekiak dira jendearentzat eta, horregatik, orotariko eztabaida, anitza eta diziplinartekoa ahalbidetzen da eta eztabaidak elkarren artean elikatzen dira.

Mintzaguneetan hamaika gai jorratu ditugu: Europa eta immigrazioa, bake- eta adiskidetze-prozesuak, genero-indarkeria, emakumeak eta botere politikoa, ekonomia- eta finantza-krisialdia, gazteak eta teknologia berriak, *Brexit* delakoa (irtenbideak eta aukerak), Zigor Zuzenbidea ETArekin amaieraren aurrean... Gai horiek guztiak baliatu ditugu Sabino Arana Fundazioak bereizgarri duen aniztasunaren kultura biziberritu eta bultzatzeko.

33 urteko ibilbidean, 320 hizlari inguruk jardun dute gogoeta eta eztabaida mintzagunean eta 7.300etik gora parte-hartzaile izan dira gaurdaino antolatutako 215 mintegi eta 60 mahai-inguruetan.

Jarduera honen onuradun nagusiak fundazioak jorratzen dituen jakintza-arloetako adituak eta espezialistak dira; agintariak eta politika, ekonomia, eta gizarte esparruetako ordezkariak; iritzi-sortzaileak; irakasleak; profesionalak eta, oro har, gizartea.

MINTEGIAK

5.1 Nazio Batuen Erakundearen 75. urteurrena

NBEk 75 urte bete berri dituen aroan, asaldura handiak gertatzen ari dira munduan, aurrekaririk izan ez duen osasun-krisi batek larriagotuta, eta horrek ondorio ekonomiko eta sozial larriak ekarri ditu.

Hori dela eta, Europako Demokraten Institutuak (IED) eta Sabino Arana Fundazioak bat egin nahi dute NBEk egindako deiarekin “elkarrizketa” global batean parte hartzeko, nazioarteko lankidetzak etorkizun hobeko baten eraikuntzan duen zereginari buruz eztabaidatzeko asmoz.

5.2 | Bilboko Elkarrizketak, Europa-Latinoamerika. Deszentralizazio-ereduak

Europako Demokraten Institutuarekin (IED) lankidetzan, Bilboko Elkarrizketen 13. edizioa antolatuko dugu. Bertan, Latinoamerikako politikariek, Europako politikariek eta nazioarteko adituek Europa eta Latinoamerikaren arteko harremani eragiten dieten gaur-gaurko hainbat gai aztertuko dituzte.

5.3 | Lankidetzaren deszentralizatuaren ereduaren sakontzea eta hura eraldatzea

Sabino Arana Fundazioak 2013az geroztik antolatzen dituen Garapenerako Lankidetzari buruzko jardunaldien esparruan, 2021eko ekitaldi honetan beste topaldi bat aurreikusi dugu. Bertan, garapenerako nazioarteko lankidetzan esperientzia duten profesionalek, lankidetzaren agentzietako eta -erakundeetako arduradunek, katedradunek eta abarrek hartuko dute parte.

5.4 | Memoria historikoa eta aktibismo artistikoa: euskal margolariak

Urtero-urtero antolatzen ditugun jardunaldien esparruan, Bilbao 700 Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak XX. mendean zehar sortutako euskal kultur adierazpenen memoria aldarrikatzeko, aurtun XX. mendeko euskal margolarien oroimenari ekingo diogu.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

5.5 | Hitzaldi-zikloa: *Euskaldunak munduan barrena*

5.5.1 Ikurrinaren mendeurrena Argentinan

Datorren uztailaren 9an, 100 urte beteko dira Argentinako euskal komunitateak ikurrina euskal banderatzat hartu zuela Buenos Aireseko Laurak Bat elkartearen ekimenez.

5.5.2 Euskal gizataldeak munduan barrena.

5.6 | Hitzaldi-zikloa: *Atzoko eta gaurko faxismoen aurka*

5.6.1 Manuel Irujo buru zuen Euskal Kontseilu Nazionalaren eta Charles De Gaulle buru zuen Frantzia Askeko Gobernuaren arteko akordioaren 80. urteurrena.

5.6.2 Faxismoa sarrera eta normalizazioa Legebiltzarrean.

5.6.3 Joseba Rezolaren heriotzaren 50. urteurrena.

5.6.4 *Fake-news* direlakoak: politika sare sozialetan.

Hitzaldi-zikloa: "Euskera, cultura y nación"

5.7 |

5.7.1 Resurrección M^a Azkueren heriotzaren 70. urteurrena.

Abadea, euskal idazlea eta euskararen katedraduna izan zela, hizkuntzaren berreskurapenaren funtsezko eragileetako bat izan zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran. Lehen euskaltzainburua izan zen Akademia 1919an sortu zenetik 1951n hil zen arte.

5.7.2 Nikolas Ormaetxea “Orixe” idazlearen heriotzaren 60. urteurrena.

Orixe 30eko hamarkadako berpizkunde kulturalaren pertsona esanguratsunetako izan zen.

5.8 | Bi hitzaldi: emakumearen ahalduntzea eta indarkeria matxista

“Feminismoa eta politika. Genero-ikuspegia politikarekin nola uztartu” izenburuaren ildoan, maiatzaren 5ean euskal alderdi politiko nagusietako bost ordezkari nabarmenek parte hartu zuten Sabino Arana Fundazioak antolatutako topaldi batean, emakumeek erakunde politikoetan eta ordezkaritza-erakundeetan dituzten zereginei eta presentziari lotutako esperientziak azaltzeko eta horiei buruz eztabaidatzeko.

Itxaso Atutxa, EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzarreko presidentea; Izaskun Duque, EH Bilduko batzarkidea Bizkaian; Idoia Mendia, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta PSE-EEko idazkari nagusia; Miren Gorrotxategi, Elkarrekin Podemos-IUko bozeramailea Eusko Legebiltzarrean; eta Laura Garrido, Euskadiko PPko idazkari nagusia, euren esperientziez mintzatu zitzaizkigun eta konpromiso irmoa azaldu zuten elkarrekin aurrera egiteko, generoaren ziozko diskriminaziorik gabeko gizarte baterantz. Eva Domaika kazetariak moderatu zuen jardunaldia.

Ezinbestekoa da XIX. eta XX. mendeetan zehar emakumeek egin duten berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako bide geldo hori lantzen jarraitzea. Horregaitik beste topaketa bat antolatuko dugu Gasteizen.

5.9 | Hiru hitzaldiko zikloa *Helduak* elkartearekin lankidetzan

Helduak elkartearekin batera, hainbat hitzaldi antolatzen ari gara, gaur egun gure adinekoak gehien kezkatzen dituzten zenbait gairi buruz, hala nola osasuna, zahartze aktiboa, pentsio-sistema eta abar.

5.10 | Bekadunak eta praktikaldiko ikasleak: 3-4 hitzaldi

Hiruzpalau topaldi antolatuko ditugu bekadunekin eta praktiketako ikasleekin, euren prestakuntza-beharrei erantzun eta garapen pertsonal eta profesionalerako behar dituzten tresnak eskaintzen dizkieten gai buruzkoak, bai eta lan-esperientziara hurbiltzeko moduari buruzkoak ere.

5.11 | Euzko Mendigoixale Batza: cien años de montaña y patria / Ehun urteko mendizaletasuna eta aberrigintza

Datorren martxoaren 17an, asteazkenarekin, arratsaldeko 19:00etan, Iñaki García Uribe euskal mendizaletasunaren ikertzaile eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko kideak hitzaldia emango du Sabino Arana Fundazioan, Euzko Mendigoixale Batzaren (EMB) historia azaltzeko, elkartearen sorreraren mendeurrenaren kariaz.

5.12 | Auzo-eskolak

Gallanoren 1919ko mozioa izan zela bide Bizkaiko Diputazioak sortutako auzo-eskolen ekimena ahalegin berezia izan zen, analfabetismo-maila handia murrizteko eta lurraldeko hezkuntza- eta kultura-desorekak artezteko, batez ere, landa-eremuetan eta meatzaritza nahiz industriako auzoetan.

5.13 | Francisco Lorda Yoldi buruzko liburuaren aurkezpena eta hitzaldia, Aitor Pescador Medranoren eskutik

Francisco Lorda Yoldi EAJren lehen hiru zinegotzietako bat izan zen Iruñeko Udalean, 1917an aukeratua. Jarduera bizi eta trinkoa garatu zuen zinegotzi gisa eta gizarte-izaera nabarmena izan zuen, neurri handi batean, Iruñeko hiriarentzat guztiz funtsezkoak izan ziren zenbait elementu landuta, hala nola Bigarren zabalgunea, *La Pamplonesa* (Iruindarra) musika-bandaren sorrera edo ogiaren prezioa. Aitor Pescadorek bi hitzaldi emango ditu liburu hau aurkezteko, bata, Sabino Arana Fundazioan, Bilbon, eta bestea, Iruñean.

5.14 | Euskadi Jaurlaritzaren Londreseko ordezkariak (1937-1945)

Iñaki Goiogana historialariak, apirilaren 15ean, ZOOM bidez emandako hitzaldia Londreseko Euskal Etxearentzat.

1937an, Pariskoa baino hilabete batzuk geroago, lanean hasi zen Londresen Euzkadiko Gobernuak Espainiako estatutik kanpo zabaldu zuen bigarren ordezkariak, artean Gerra Zibila bete-betean zegoela euskal lurraldeetan. Kasu horretan ere, Frantziako ordezkariarekin gertatu bezala, bi izan ziren hiri hori aukeratzeko arrazoi nagusiak. Alde batetik, guztiok espero zuten Britainia Handiak eginkizun politiko garrantzitsua izatea gerran. Bestetik, Britainia Handia ume iheslarietako harrera-lekua ere izan zen, herrialde horretako hainbat eskualdetan kanpamentu eta barnetegiak ezarri zirela, eta horiek koordinatzeko eta gainbegiratzeko egitura administratiboa behar zen.

5.15 | “Venezuelako ekonomia: hondamenditik susperraldira”

Venezuelako IESA erakundeko (Goi Mailako Administrazio Ikasketen Institutua) ekonomialari eta irakasle titularrak “Venezuelako ekonomia: hondamenditik susperraldira” hitzaldia eman zuen apirilaren 27an.

Puente irakasleak BPGren bilakaera agregatuaren azterketa historikoa eta konparatiboa egin zuten, Venezuelako ekonomia egun pairatzen ari den hondamendiak eta horrek

sorrarazi dituen gizarte-ondorioak modu enpirikoan kuantifikatzeko. Azterketan, Nazioarteko Diru Funtsak 1980-2020 aldian 192 herrialderi buruz emandako datuetan eta Venezuelako Banku Zentralak (BCV) 1950-2018 aldian emandakoetan oinarritu zen.

5.16

Hitzaldia/liburuaren aurkezpena: “Ganbara argiztatua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak”

Alazne Diez soziologo eta antropologoak urriaren 14an aurkeztuko du SAFen bere azken liburua: “Ganbara argiztatua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak”. Egileak hainbat profiletako emakume-talde bati egindako hamahiru elkarrizketa dira, 1935 eta 1952 urteen artean jaiotakoak. Lan honekin, Alazne Diezek balioa eman nahi die emakume horien lanari -eta identifikatuta senti daitezkeen beste hainbaten lanari-, garai ez oso errazetan beren argiarekin distira egin baitute. Eta bizipen horiek eta hobetzeko espiritua beste belaunaldi batzuentzako eredu, itsasargi edo gidari izan daitezen saiatzeko grina.

| EUSKARA

6.1 | Euskera1 mintegia

"Espainiako Hezkuntza Lege berria eta horren irismena". 2021ean, Hezkuntza Lege berria onartuko da Kongresuan. Mintegiaren helburua izango da gogoeta egitea lege berriaren printzipio, aurrekari, helburu, Hego Euskal Herrian izan dituen ondorio eta gure erakundeen eskumen eta aurrerapenei buruz.

Beraz, Euskaltzaindiarekin lankidetzan, mintegia 2021eko uztailaren 12ko astean antolatu nahi genuke. Bertan, Espainiako Gobernuko, Euskadiko eta Nafarroako erkidegoetako ordezkariak eta eragileak gonbidatuko genituzke, gaiari buruz hitz egin eta euren iritziak azal ditzaten. Mintegi/jardunaldi hau *Hermes* berezi batean jasoko genuke.

6.2 | Euskera2 mintegia

"Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen 40. urteurrena". 2022an, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 40 urte beteko ditu. Hala, 2021eko abenduan, Bilbon, Euskaltzaindiarekin batera, gogoeta-jardunaldi bat antolatu nahi dugu lege honek ekarri duenaz, bere aurrerapenez, egiteke dugunaz eta erronka berriez. Bertan, erakunde publikoetako ordezkariak eta eragileak gonbidatuko dira. Mintegia abenduaren 13ko astean egitea aurreikusi dugu.

7.1 | Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

2021ean, eskaintza didaktikoa zabaltzeko asmoa dugu, adin-tarte guztientzako tailerrak eskainiz, unibertsitateko ikasleei, adinekoei eta guzti.

Beste alde batetik, begiz jo dugu historiari buruzko tailerrak egitea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleentzat, gure eskaintza ikastetxeetako ikasketa-eskariari erantzuteko helburuz; argazkigintzaren oinarrizko edukiak ezagutzeko tailerrak ere antolatu gura ditugu, besteak beste, argazki-kamera bakun bat egiten eta irudiak errebelatzen ikas dezaten.

Ildo horretan, sei multzotan bildutako tailerrak antolatuko ditugu.

1) ETORKIZUNA ERAIKITZEN / CONSTRUYENDO EL FUTURO: IZAN GARELA KO IZANGO DIRA

- **Historiako tailerrak.** Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, gerraren ondorioetan sakonduko dugu: hobiak aurkitzea, DNA aztertzea...
- **Bilbo eraikitzen.** Bilboko iragana eta oraina ezagutuko ditugu atzoko eta gaurko irudiak uztartuz.
- **Pika Pika.** Tailer honen bidez, Gabonetako zorion-txartela gertatuko dugu Pika-Pika teknika erabiliz.

2) EUZKADI MUNDUAN

- Kanpoko ekintza, nazioarteko harremanak, migrazioak eta erbesteratzea landuko ditugu tailer hauetan.

3) ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA ARTE, CIENCIA, TECNOLOGIA, INNOVACIÓN

- **Ganbera estenopeikoa egitea kartoizko kutxa bat erabiliz.** Lehengo argazki-kameren printzipioak garatuko ditugu.
- **Ganbera estenopeikoa** eta irudiak errebelatzea. Argazkigintzan murgilduko gara irudian historia jorratuz. Hasteko eta bat, ganbera (oinarrizko argazki-kamera) bat egingo dugu eta hori baliaturik argazkiak egingo ditugu. Tailerraren amaieran, argazkiak errebelatuko ditugu.
- **Tximistargazkia.** Argazkigintza ezohiko ikusmolde batetik landuko dugu eta argazkiak aterako ditugu argazki-kamerarik erabili barik.

4) IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURren AMAMAREKIN ESCRIBIR Y SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

- Honako tailer hau Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik egiten da ikasleak gogatu eta irakurzaletasuna sustatzeko, benetako istorioak direla bide.

5) MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD

- **Taumatropoa** jostailu optikoa da eta irudiak mugitzen direlako itxura sortzeko erabiltzen da.
- **Kolore hiperkonektatuen tailerrean**, kolorearen alderdirik abstraktuen eta esperimentalena landuko dugu. Hala, hainbat gai erabiliko ditugu erliebeko marrazkia egiteko, baita gatza eta tenperak ere.
- **Gabonetako zorion-txartelak**. Gure ohituretako batzuk berreskuratu nahi ditugu eta, horretarako, eskuz egingo ditugu Gabonetako zorion-txartelak.
- **Hamma Beads**. Gabonetako apaingarriak egingo ditugu eta hiru dimentsioko irudiak sortuko ditugu, plastikozko pieza txikiak jarriz eta jarriz.

6) HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO

HISTORIA: CONOCER PARA TRANSFORMAR

- **Burdin Gerrikoaren Interpretazio Zentroa**. Historiaren barruan, gerra eta haren ondorioak landuko ditugu.
- **Arboglifoak**. Arboglifo bidez, euskal artzainen (batik bat, Ameriketara joandako euskal artzainen) istorioa ezagutuko dugu eta arboglifoak zer diren azalduko dugu.
- **Picassoren 'Guernica'**. Tailer honetan, gure historia aletuko dugu eta, bide batez, nazioartean sekulako ospea hartu zuen margolaria hobeto ezagutuko dugu. Tailer honetan, hasteko, banako lana egingo dute ikasleek eta, geroago, taldeko lana landuko dugu. Horretarako, banako marrazkiak lotuko ditugu eta hormairudi aparta onduko dugu.

Aurrekoez gain, tailer berezi batzuk sortu ditugu 2021ean emateko.

1) unibertsitateko ikasleentzat: «**Museoko materialen bizitza**» ondokoak osatuta:

- Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Ehunaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Paperaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Zuraren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Pinakotekako gaien eta eskulturen kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Lan-mahaia, ondoko parte-hartzaileekin:
 - ... Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzua.
 - ... UPV/EHUko irakasleak
 - ... Arloko adituak.
 - ... Ikasleak (museoan praktikak egiten egon direnak).
- Komisariotzari buruzko hitzaldia.
- Lanak tasatzeari buruzko hitzaldia.

2) heldu eta adinekoentzat:

- Euskal artzainen leku askotarako (batez ere, Ameriketarako) emigrazioaren historiari buruzko tailerra.
- Argazkigintza-tailerra, ezohiko ikusmoldea landuta (argazkiak argazki-kamerari gabe lortzeko teknika).
- “Zatoz museoko pinakotekara” tailerra, Roberto Landeta akuarelistaren eskutik. Tailer honetako parte-hartzaileek margolariak, margolanak, margotzeko teknikak eta abar ikasiko dituzte eta, gainera, saio praktikoa egingo dute gure instalazioetan, norberak margoturiko lana –museoko margolanen batean oinarriturikoa eta alde zurratik hautatutakoa– etxera eramango duela.
- “Ehunkiak babestu, jagon... zaindu”. Hitzaldi horren bitartez, gure ehunkiak ondo zaintzeko jarraibideak eman nahi ditugu. Ehunkiak jagotea erronka handia izan da beti. Erabilerak, biltegiak eskasak, parasitoek eta zuntzen apurkako higatzeak, denboraren poderioz, ehunkia hondatzen dute. Ohituraz, ehunkiak ardura handiz zaindu dira euren bizitza baliagarria luzatzeko. Gaur egun, lehengo azturak galdu ditugu eta ‘erabili eta botatzekoa’ eguneroko kontu bilakatu zaigu. Usadio zaharrak berreskuratzen baditugu eta egungo moldeetara egokitzen baditugu, gure arropen bizitza luzatu ahalko dugu. Gainera, badira ehunki ugari gorde behar ditugunak, hurrengo belaunaldiak gai horien iraganaz (familiarena, gizartearena, historikoa, ikonografikoa...) jakin eta etorkizuna eraikitzeko oinarritzat balia dezaten. Hitzaldiaren osagarri, saio praktikoa batek lagunduko digu gure ehuneko “altxorak” zaintzen.

DESKRIBATUTAKO JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK

- Euskal Herriko gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-alderdi garrantzitsuenak ezagutzera ematea, bereziki, gaurkotasuna duten auzi esanguratsuenak.
- Ezaupideak zabaldu eta partekatzea jakintza-arlo askotatik.
- Gaitasun kritikoa garatzea: egungo gizarteak gaitasun kritiko handia eta ingurunea zorrotz aztertzen duten pertsonak behar ditu. Giza garapenaren alderdi hori, gure ustez, funtsezkoa eta ezinbestekoa da gazteen prestakuntzan, helduaroan gizarte-erantzukizuna izan dezaten.
- Arian-arian azaltzen zaizkigun erronka eta aukera berriei irtenbidea ematea.

EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA ETA MUSEOA, FUNTSEZKO TRESNAK EUSKAL GIZARTEAREN GARAPENEAN

Sabino Arana Fundazioa 1988 urrian sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa. Sorrerako helburuetako bat Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eratzea izan zen eta horretan egin zituen ahaleginak eta bi. Jakina denez, agiritegi historikoek herrialde jakin baten historia biltzen dituzten funtsak gorde, kudeatu, zabaldu eta herritarren eskueran jartzen dituzte. Gaur egun, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak dokumentazio historiko esanguratsua dauka hainbat funtsetan banatuta: Agiritegia, Liburutegia eta Hemeroteka. Agiritegiko funtsetan, aipatzekoak dira XIX. Eta XX, mendeetako fitxategi historikoak, erbestealdian ziren euskal ordezkariak eta 1936ko gerran sorturiko funtsak, herrialdearen barruan nahiz kanpoan; era berean, alderdi edo elkarte politikoen agiriak, kultura-elkarteen agiriak, enpresen agiriak eta norbanakoen agiriak ere badaude.

Liburutegian eta Hemerotekan gordetako funtsak ondoko arloetakoak dira: Historia Garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak. Guztira, berrogeita hamar funts baino gehiago gordetzen dira, 4.500 instalazio-unitate, 44.520 monografia eta serieko argitalpenen (egunkari eta aldizkariak) 7.350 titulu baino gehiago, hau da, 189.400 ale inguru. Milaka agiri eta gauzaki horiek sailkatu behar dira, deskribatu eta zein bere sailean ezarri. Horiez guztiez gain, Euskal Abertzaletasunaren Museoak dohaintza ugari jasotzen ditu. Nabarmen behar dugu fundazioak jasotzen dituen dohaintza guztiak, agiritegikoak nahiz museokoak, altruistak direla. Ez dago inolako kontraprestazio ekonomikorik. Sabino Arana Fundazioa dugu agiritegi eta museo historikoak sortu, kudeatu eta jagoten dituen bakarra. Bi baliabide horiek gizartearen zerbitzuko sortu ziren, gure ondare historikoaren eta kulturaren zabalkundea egiteko asmoz. Azken batean, eginkizun aparta betetzen dugu gure oroimen historikoa berreskuratzen.

Agiri, gauzaki, argazki eta bestelako guztiak ikertzaileen, norbanakoen, hedabideen eta besteren esku daude. Eta bertan dauden funtsen erabilgarritasun eta garrantziaren erakusgarri, esan dezagun erruz kontsultatu direla. Agiritegiko dokumentazioa baliatu dute gudari, ertzain, preso eta iheslari askok pentsioa edo kalte-ordainak kobratzeko.

Izan ere, gure ahalbideen heinean, eskaera guztiei erantzun egiten diegu. Urte hauetan guztietan, dokumentazioari lotutako eguneroko zereginez gain (erregistroa eta deskribapena, gordetzeko eta zabalkundea egiteko) eginkizun atsegina dugu banako zein taldeko erabiltzaileei arreta egitea, ikertzaile profesionalak nahiz informazio jakinen baten bila gurera datozen norbanakoak izanik ere. Eta hori guztia egiten dugu inolako kontraprestazio ekonomikorik eskatu gabe.

Gure funtsak erabiltzeko, ez da baimen berezirik behar; gainera, esan dezakegu gure funtsak erabili dituzten ia guztiek oso gustura hartu dituztela eskainitako dokumentazioa, hartutako informazioa eta jasotako tratua.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago hedabideek, herri-erakundeek eta bestelako antolakundeek askotan baliatzen dituztela gure funtsak liburuak irudiztatzeko, artikulak

hornitzeko, erakusketak antolatzeko... eta guztiz azpimarragarria da bertako dokumentazioa oinarritzeko gertatu izana ikerlan eta argitalpen ugari bideratzeko.

Agiritegia eta museoa aintzat harturik, 7.723 kontsultari erantzun diegu eta ia mila ikertzaile etorri dira gure kontsulta-aretoa. Euskal ikertzaileak nagusi diren arren –Bizkaiko Lurralde Historikoan gaudela eta– katalanek, madrildarrek, frantsesek, alemanek, amerikarrek, japoniarrek eta bestek egin dituzte kontsultak gure agiritegian. Ikertzaileek gure agiri-funtsak erabili dituzte hainbat argitaletxetako ehun bat argitalpenetan. Beste alde batetik, gure fundazioak ia-ia 200 lan argitaratu ditu, monografiak eta ikus-entzunezkoak kontuan hartuta.

Bestetik, Museoak 210 erakusketa propio –iraunkorrek nahiz aldi baterakoak– baino gehiago antolatu ditu.

Museoko gauzakiak eta agiriak ehun erakusketetan baino gehiagotan egon dira ikusgai Euskadin, estatuan eta nazioartean: Madril, Londres... Argazki-funtsak ere sarritan erabili dira Euskadiko, estatuko eta nazioarteko hedabideetan nahiz telebista ekoiztetxeetan.

Gaur egun, museoaren zeregin nagusiak ondokoak dira: argazki-funtsa katalogatzea, dekorazio-arten eta arte grafikoen funtsa berrantolatzea eta dohaintza berriak erregistratzea, inbentarioan jasotzea eta katalogatzea. Hala, milaka objekturen eta ehunka mila argazkiren zaintza kudeatzen du.

Gainera, nabarmendu behar dugu Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Agiritegi Historikoa 2013an zabaldu zela gure lankidetzari esker, eta herritar guztien esku jarri duela euskal administrazio publikoaren 1936tik aurrerako funts historikorik behinena. Sabino Arana Fundazioak dokumentazio ugari hori guztia zaindu, kudeatu eta ikertzaile nahiz norbanakoen esku jarri du 90eko hamarkadatik. Antzeko zerbait gertatu zen, hein txikiagoan –funtsen tamainagatik diogu, ez garrantzi historikoagatik–, 2002. urtean. Urte hartan, Kataluniako *Arxiu* Nazionalari eman genion ordura arte geuk gordetako eta zaindutako Kataluniako Generalitat-earen dokumentazio historikoa (Errepublika eta erbestealdia).

LIBURUTEGIA ETA HEMEROTEKA

Espezialitateak: Historia garaikidea, Politika, Antropologia, Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak.

Funtsak (kopuruak):

Monografiak: 45.196

Egunkari eta aldizkariak: 7.342 titulu eta 189.415 ale

ZERBITZUAK (Agiritegia eta Museoa, 1992. urtetik)

Kontsultak: 7.723 (batez beste, 350 urtean)

Aretotik igarotako ikertzaileak: 771 (batez beste, 60-75 urtean)

A) OROKORRA

lkerketak, erakusketak, hitzaldiak, artikulak, hitzaldiak, mintegiak... urteurrenen inguruan.

B) AGIRITEGIA

- Funtsen antolaketa eta deskribapena: José Azkarate Etxandi (1878-1957), Eduardo Landeta Aburto (1890-1936) jaunen fitxategiak eta beste batzuk; halaber, dohaintza bidezko dokumentazioaren sarrera berriak jaso eta instalatzea, batez ere, Iñaki Anasagastik emandakoak.
- Iku-entzunezko materialen erregistroak.
- Kasetetan jasotako soinu-dokumentuak euskarri digitaletara bihurtzea.
- Erabiltzaileentzako eta ikertzaileentzako arreta: kontsultak jasotzea (erregistroa eta erantzunak) eta ikertzaileentzako zerbitzua aretoan eta urrutitik (informazioa, dokumentazioa ematea eta jasotzea, fotokopiak egitea, kopiatu beharreko dokumentazioa eskaneatzea, irudi digitalizatuak pdf fitxategi babestuetan bidaltzea...).
- Euskarriak helaraztea ekoiztetxei eta hedabideei, gure historiako gertaera edo pertsona jakin batzuei buruzko lanak egin ditzaten.
- Buenos Airesko Ekin argitaletxearen Artxiboaren antolaketa?

C) LIBURUTEGIA

- Dohaintza eta/edo erosketa bidez, liburutegian txertatu direnko liburu berriak datutegian sartzea. Aleei bizkar-etiketa jartzea eta biltegian gordetzea.
- Norbanakoen dohaintzetatik eskuratutako aleak hautatzea. Gure liburutegian erabili eta edoniz kontsultatzeko modukoak ez direnak Gaintzara edo beste liburutegi edo/eta dokumentazio-zentro batzuetara bidaltzen dira eta nolabaiteko balioa dutenak (balio historikoa, politikoa edo sentimentala) Arteako urruneko biltegian gordetzen dira.

D) HEMEROTEKA

- Dohaintza eta/edo erosketa bidez (harpidetzak), hemerrotekan txertatu direnko titulu eta ale berrien erregistro-fitxa egitea. Kronologiaren arabera antolatzea eta biltegian jartzea.
- Errepikatutako aleak garbitzea (Gaintza) eta zelanbaiteko balioa duten aleak Arteako urruneko liburutegira eramatea.
- "Hustuketa" izeneko datutegia (orokorra) elikatzea: gaur egungo egunkari eta aldizkarietan (*DEIA*, *Hermes*, *Historia Contemporánea*...) nahiz argitalpen historikoetan (*Euzkadi*) argitaratu diren euskal abertzaletasunaren edozein alderdiri buruzko artikulak erregistratzea.

E) ARGITALPENEN KONTROLA / ARTIKULUAK / ARGITALPENAK / HITZALDIK / IKERKETA / ERAKUSKETAK

- DEIA n astero argitaratzeko artikuluen koordinazioa.
- Kolaborazioak hainbat hedabidetan (prentsa, irratia eta telebista) eduki historiko, urteurren eta abarren zabalkundea egiteko.
- Mahai-inguru, liburuen aurkezpen eta adituen jardunaldietan parte-hartzea.
- Hitzaldietan parte-hartzea.
- Sabino Arana Fundazioaren Museoak antolatzen dituen erakusketen euskarria.

F) INFORMATIKA – WEBGUNEAK – SARE SOZIALAK: INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA

- Webguneak: Fundazioarena, Agirre Lehendakariarena, Sabin Etxearena eta Sabino Arana Goirirena. Ildo horretan, atal berria sortuko da sabinoarana.eus webgunean (modulua, diseinua, bilatzaileak, etab.), DEIA egunkarian argitaratutako eta Fundazioak koordinatutako “Historias vasca” saileko erreportajeak zabaltzeko eta haietarako sarbide askea izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Gure webguneko eta sare sozialetako (Facebook, Instagram eta Twitter) “Lau haizeetara” sailean zabaltzen diren efemerideak eta eguneroko albisteak argitaratzeko euskarri historiko eta editoriala.
- Artikulu eta bideo berriak jasotzeko komunikazio-kanpainak.
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak zuzenean zabaltzea *streaming* bidez; gure egoitzako Agirre Lehendakaria aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegitratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta, geroago, Internetera igotzea, nahi duenak gure webgunetik edo Youtubeko profiletik ikusteko.

HELBURUAK

2021eko ekitaldian, dek^oorazio-arten funtsa eta argazki-funtsa erregistratzen, inbentariatzen eta katalogatzen jarraitzea dugu helburu. Aurten, gure ehun-funtsaren prebentziozko kontserbazioari ekingo diogu, jantzien atalean.

Material hori guztia interes historiko handikoa da, orain arte ezezaguna izan delako duela hilabete batzuk guregana iritsi eta, gehienbat, inoiz argitaratu gabeko materiala baita. Funtsa gerrako jantziek eta arropa zibilek, dantzako jantziek eta erlijio-jantziek osatzen dute.

Funts hori katalogatzeko helburua hura zabaltzea da, historialariek, ikertzaileek, erakundeek eta, oro har, herritarrek ezagutzen ez duten materiala baitugu gure esku, eta funts horien gaineko ezagutza biziki garrantzitsua da garai historiko horri buruz gehiago jakiteko.

Era berean, nabarmendu nahi ditugu Museoan funts horren inguruan garatuko dugun alderdi didaktikoa eta ikastetxeetako curriculum-jardueretan izango dugun parte-hartzea; horrela, erraztasunak emango dizkiegu txikiei gure historiaz jabetzeko eta historian parte hartzeko. Era berean, dohaintzan jasotzen ditugun objektuak eta materialak katalogatuko ditugu eta, behar izanez gero, zaharberrituko ditugu.

Funtsei gagozkiela, 2020. urtearen amaieran, arte grafikoko euskarriz osaturiko dohaintza bat jaso dugu, eta horietako batzuen egungo egoerari buruzko txostenak egin ditugu, bai eta horien inguruko jarduketaren plana ere, margolanon hondatzea saihesteko. Lan hori UPV/EHUko Kontserbazio Masterreko praktiketako ikasleekin batera egiten da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen aholkularitza jasotzen da, kontserbatzaileen eta masterreko irakasleen euren eskutik.

Prebentzio-zaintzako jarduerak garatzen jarraituko dugu, hau da, bildumen balizko narriadurak txikiagotzeko eta, etorkizunean, tratamendu korapilatsuagoak saihesteko beharrezko neurriak hartzen.

Era berean, 2021ean, Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatzen dituen jarduera didaktikoak sustatu nahi ditugu, eta ikastetxeen zerbitzura jarri nahi ditugu gure instalazioak eta zerbitzuak, ikasketa-programan lagungarri izan daitezten. Horretarako, 2020an garatu genituen jarduerak eskainiko ditugu aurten ere, eta jorratutako gaien zerrenda nahiz adin-tartea zabalduko ditugu, ahalik eta ikasle gehienengana iritsi ahal izateko, bai eta unibertsitateko ikasle eta adinekoengana ere heltzeko.

JARDUERAK

2021. urtearen barruan, Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatutako "Nor gara gu?" deritzon erakusketa erdi-iraunkorra abian jarriko dugu. Erakusketa horren helburua da Euskadiko historiaren azken mendeko ibilbide erakargarria eskaintzea, eta gure adinekoek bizi izan dituzten gertaerak herritarrenganatzea Sabino Arana Fundazioan gordetako objektu, argazki, dokumentu, argitalpen eta abarren bidez.

Gure museoko piezen lagapenak egingo ditugu, eta beste erakunde batzuetako erakusketetan ikusgai egongo dira, besteak beste, "Euskal Poliziaren Museoan", "Bakearen Museoa Fundazioan", Eusko Legebiltzarrean edo Jonquerako Udalak kudeatzen duen Museu de L'Exilin.

Aurten, gure eskaintza didaktikoa sendotu nahi dugu hainbat adin-tartetako hartzaileentzako tailer didaktikoen bidez, betiere historia ardatz hartuta.

1) JANTZIEN SAILEKO EHUN-FUNTSAREN INBENTARIOA, KATALOGAZIOA ETA PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOA

Jantzien sail osoaren azterketa xehatua egingo dugu, lehenik eta behin, pieza bakoitzaren erregistroa eginda, eta, ondoren, aleen katalogazioa egingo dugu, xehe-xehe jasota. Prebentziozko kontserbazioaren arloko adituak piezok ebaluatu ditu, egungo egoera jasoko eta horietako bakoitzak behar duen esku-hartzearen irismena zehaztuko du. Azkenik, ehunezko gaiak berariazko euskarrietan paratuko ditugu. hobeto kontserba daitezten.

Pieza bakoitzaren irudiak modu digitalean eta xehatuan hartuko dira, bai eta esku hartu beharreko eremua ere, beharrezkoa izanez gero. Ondoren, egindako esku-hartze bakoitzaren txostena egingo da, kasuan-kasuan izandako jarduketaren norainokoa jasota.

Material horien zati bat "Nor gara gu?" erakusketan erabiliko da, baina ehunkien hauskortasuna dela eta, pieza bakoitza ez da hiru hilabete baino denbora luzeagoan erakusgai egongo, eta, beraz, piezak txandakatu eta aldatu egingo dira ezarritako epearen arabera eta esposizio-maila (argia, giro-tenperatura) kontuan hartuta, prebentziozko kontserbazioaren baldintzei jarraituz, behar bezala babesteko.

2) TAILERRAK ETA ERAKUSKETAK

Aurten, gure eskaintza didaktikoa zabaltzeko asmoa dugu eta, horretarako, adin-tarte guztietako hartzaileentzako tailerrak antolatuko ditugu, unibertsitateko kide eta adinekoentzat ere egokituta.

Helburua betetzeko, historia tailerrak antolatuko ditugu, bai eta euskal tradizioei buruzko tailer bat ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, euskal idazle eta artisten eskutik. Dena dela, esandakoaren ildotik, beste tailer bat antolatuko helduentzat, antzeko emailen eskutik; azkenik, belaunaldien arteko tailer pilotu bat antolatuko dugu, historia, tradizioak eta gure hizkuntza, euskara, lantzeko.

Bigarren zikloko eta Batxilergoko ikasleei ere eskainiko dizkiegu historiari buruzko tailerrak, gure eskaintza ikastetxean ikasketa-eskarira moldaturik. Bestalde, argazkigintzaren printzipioak ezagutzeko tailerra, argazki-kamera bat egiteko tailerra eta irudiak errebelatzekoa ere eskainiko ditugu.

lido horretan, sei multzotan bildutako tailerrak antolatuko ditugu.

1) ETORKIZUNA ERAIKITZEN / CONSTRUYENDO EL FUTURO:

IZAN GARELAKO IZANGO DIRA

- **Historiako tailerrak.** Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera, gerraren ondorioetan sakonduko dugu: hobiak aurkitzea, DNA aztertzea...
- **Bilbo eraikitzen.** Bilboko iragana eta oraina ezagutuko ditugu atzoko eta gaurko irudiak uztartuz.
- **Pika Pika.** Tailer honen bidez, Gabonetako zorion-txartela gertatuko dugu Pika-Pika teknika erabiliz.

2) EUZKADI MUNDUAN

- Kanpoko ekintza, nazioarteko harremanak, migrazioak eta erbesteratzea landuko ditugu tailer hauetan.

3) ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA

ARTE, CIENCIA, TECNOLOGIA, INNOVACIÓN

- **Ganbera estenopeikoa egitea kartoizko kutxa bat erabiliz.** Lehengo argazki-kameraren printzipioak garatuko ditugu.
- **Ganbera estenopeikoa** eta irudiak errebelatzea. Argazkigintzan murgilduko gara irudian historia jorratuz. Hasteko eta bat, ganbera (oinarrizko argazki-kamera) bat egingo dugu eta hori baliaturik argazkiak egingo ditugu. Tailerraren amaieran, argazkiak errebelatuko ditugu.
- **Tximistargazkia.** Argazkigintza ezohiko ikusmolde batetik landuko dugu eta argazkiak aterako ditugu argazki-kamerarik erabili barik.

4) IDAZTEA ETA AMETS EGITEA NURren AMAMAREKIN

ESCRIBIR Y SOÑAR CON LA AMAMA DE NUR

- Honako tailer hau Toti Martínez de Lezea idazlearen eskutik egiten da ikasleak gogatu eta irakurzaletasuna sustatzeko, benetako istorioak direla bide.

5) MENDE BERRIKO ESKOLA: KULTURARTEKOTASUNA

LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO: MULTICULTURALIDAD

- **Taumatropoa** jostailu optikoa da eta irudiak mugitzen direlako itxura sortzeko erabiltzen da.
- **Kolore hiperkonektatuen tailerrean**, kolorearen alderdirik abstraktuen eta esperimentalena landuko dugu. Hala, hainbat gai erabiliko ditugu erliebeko marrazkia egiteko, baita gatza eta tenperak ere.
- **Gabonetako zorion-txartelak.** Gure ohituretako batzuk berreskuratu nahi ditugu eta, horretarako, eskuz egingo ditugu Gabonetako zorion-txartelak.

- **Hamma Beads.** Gabonetako apaingarriak egingo ditugu eta hiru dimentsioko irudiak sortuko ditugu, plastikozko pieza txikiak jarriz eta jarriz.

6) HISTORIA: EZAGUTU ERALDATZEKO

HISTORIA: CONOCER PARA TRANSFORMAR

- **Burdin Gerrikoaren Interpretazio Zentroa.** Historiaren barruan, gerra eta haren ondorioak landuko ditugu.
- **Arboglifoak.** Arboglifo bidez, euskal artzainen (batik bat, Ameriketara joandako euskal artzainen) istorioa ezagutuko dugu eta arboglifoak zer diren azalduko dugu.
- **Picassoren ‘Guernica’.** Tailer honetan, gure historia aletuko dugu eta, bide batez, nazioartean sekulako ospea hartu zuen margolaria hobeto ezagutuko dugu. Tailer honetan, hasteko, banako lana egingo dute ikasleek eta, geroago, taldeko lana landuko dugu. Horretarako, banako marrazkiak lotuko ditugu eta hormairudi aparta onduko dugu.

Aurreko ez gain, tailer berezi batzuk sortu ditugu 2021ean emateko.

1) unibertsitateko ikasleentzat: «**Museoko materialen bititza**» ondokoak osatuta:

- Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Ehunaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Paperaren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Zuraren kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Pinakotekako gaien eta eskulturen kontserbazioari buruzko hitzaldia.
- Lan-mahaia, ondoko parte-hartzaileekin:
 - ... Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzua.
 - ... UPV/EHUko irakasleak
 - ... Arloko adituak.
 - ... Ikasleak (museoan praktikak egiten egon direnak).
- Komisariotzari buruzko hitzaldia.
- Lanak tasatzeari buruzko hitzaldia.

2) heldu eta adinekoentzat:

- Euskal artzainen leku askotarako (batez ere, Ameriketarako) emigrazioaren historiari buruzko tailerra.
- Argazkigintza-tailerra, ezohiko ikusmoldea landuta (argazkiak argazki-kamerari gabe lortzeko teknika).
- “Zatoz museoko pinakotekara” tailerra, Roberto Landeta akuarelistaren eskutik. Tailer honetako parte-hartzaileek margolariak, margolanak, margotzeko teknikak eta abar ikasiko dituzte eta, gainera, saio praktikoa egingo dute gure instalazioetan, norberak margoturiko lana –museoko margolanen batean oinarriturikoa eta alde zurretik hautatutakoa– etxera eramango duela.
- “Ehunkiak babestu, jagon... zaindu”. Hitzaldi horren bitartez, gure ehunkiak ondo zaintzeko jarraibideak eman nahi ditugu. Ehunkiak jagotea erronka handia izan da

beti. Erabilerak, biltegiatze eskasak, parasitoek eta zuntzen apurkako higatzeak, denboraren poderioz, ehunkia hondatzen dute.

Ohituraz, ehunkiak ardura handiz zaindu dira euren bizitza baliagarria luzatzeko. Gaur egun, lehengo azturak galdu ditugu eta 'erabili eta botatzekoa' eguneroko kontu bilakatu zaigu. Usadio zaharrak berreskuratzen baditugu eta egungo moldeetara egokitzen baditugu, gure arropen bizitza luzatu ahalko dugu.

Gainera, badira ehunki ugari gorde behar ditugunak, hurrengo belaunaldiek gai horien iraganaz (familiarrena, gizartearena, historikoa, ikonografikoa...) jakin eta etorkizuna eraikitzeko oinarritzat balia dezaten.

Hitzaldiaren osagarri, saio praktiko batek lagunduko digu gure ehunezko "altxorak" zaintzen.

Fundazioak ematen dituen sariak Sabino Aranaren jaiotegunaren oroitzapenez sortu ziren. Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu jauna buru izan duela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXXII. edizioa egingo da urtarrilaren 26an, Bilboko Arriaga antzokian.

Dagoeneko 180 pertsona, elkarte eta erakundek jaso dute saria azken 31 edizioetan, gizartearentzako zerbitzu eta gogozko lana egitegatik. Izan ere, elkarrizketa, ahalegina, elkartasuna eta beste balio batzuk izan dira nagusi Sabino Arana Fundazioak antolatzen duen urteroko hitzordu honetan.

- 2021eko ekitaldian, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lankidetzan jardungo dugu “Oroimena berreskuratzeko asmoz hildakoak hobietatik aterata”. Era berean, Gerra Zibilean desagertutakoak, fusilatutakoak eta hobi komunetan lurperatutakoak aurkitzeko, hobietatik atera eta identifikatzeko helburuz, Aranzadi elkarteak garatzen ari den ikerlanen berri emango dugu.
- Martxoan, Euskadin dauden Galiziako Etxeen Irmandadea deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galziarraren sortzaileari omenaldia egingo diogu. Ekitaldi horretan, lore-eskaintza egingo da Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean, Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
- Beste erakunde, herrialdeko agintari eta Gerra Zibiletik bizirik atera ziren hainbat lagunekin batera, Gernikan, hiribilduko bonbardaketan izandako biktimen omenez egiten den lore-eskaintzan parte hartuko dugu apirilaren 26an.
- Ekainean, “Aterpe 1936” monumentuaren XI. urteurrenean parte hartuko dugu.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, gure ume eta gazteek hobeto ezagut ditzaten gure historia eta bizi gareneko ingurunea.
- Beste ekitaldi batzuk.

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, *streaming* bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

AZALDUTAKO JARDUEREN ONURADUNAK

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsetan duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako eta, bestetik, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztietako hizkuntza ofiziala delako.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onarturiko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak dio: “ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izango da”.

Ondorioz, egitasmo honek ESEPe planteatzen duen helburu nagusiarekin bat dator, bai eta helburua lortzeko planteatzen dituen zehar lerroekin ere, hala nola: “Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragiteak berebiziko garrantzia du, jakina, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarritzko azalpenak gizarteratzea, hizkuntza ezagutzetik erabiltzera dagoen jauzia egiten

laguntzeko lantegiak antolatzea, lidergoa lantzea hizkuntzen normalizazioaren alorrean, eta abar. Sentsibilizazioak eta komunikazioak pisu nabarmena dute, beraz, esparru honetan”.